

Ālbistearen miztoa

«Capra Hispanica» deritzan ahuntza salbaturik omen da. Halaxe esan digute Tortosatik. Pozteko da, noski, abereok hain poliki salbatu ahal izatea. Izadia* —hain errespetagarria— aberatsago izanen da orain. Holaxe holaxe, guk geuk ere ez dugu deus* galduko. Ahuntzaren etorkizuna segurta* dadinean, beharbada gu ere salbatuko gara.

*
* *

Alvaro Cunqueiro, «omnívoro y gallego por la gracia de Dios», Galiziako idazle ezaguna da. Galiziar idazleari, nonbait, halako eztenkada batzuk eman* ohi dizkiote, idazle konprometatua* ez delako edo, irudimen hutsezko luma darabilala salatuz. Eta horra zer zuen esateko, salakuntza horretaz: «Baí, ba,* halaxe da. Nik ere ez dut uste, konprometatu gaberik, idazle izan litekeenik. Mundu hoñetan izan ba diren idazle guztiak dira konprometatua. Adibidez, ni neu norabide* jakin batetik konprometatua nago, hau da, neure hizkuntza galegoaren bidetik hitzemanana naiz. Galegoz idaztea —besterik gabe ere— konpromiso* bat da. Ez dut dudarik horretaz. Izan ere, aukera* horrek mugatu egiten du idazlearen zabalkuntza, ospea, eta kibraketa...» Ene, bada, Cunqueirok esaten dituenak!

*
* *

Salamancako Eliz Unibertsitateko Erretoreak esan duenez, «Eliza espainolak, mendez mende, hutsune intelektual larri bat jasaten* du». Eta ez omen da hori Erretorearen eritzi narrugorria, Morcillo zenak esana baizik, hau da, Guerra Campos-en aita* pontekoarena baino. Ba daki-zu: egiak, gutien uste dezakezun iturrietatik jaso daitezke. Beti ere, hobe da hola. Ea, ba,* sendagarririk aurkitzen zaion eritasun luze horri.

*
* *

Soldadutzaren kontzientzi kontraesaleek (kontzientzi objektatzaileek esan nahi dut) ez dute bizitza samurrik.* Beren bertute onak gorabehera,* Cuencako apezpikuak, Guerra Campos berak, mugatu dizkie eskubideak: «Kontzientzi objektatzaile horiek ez dute anaitasunaren eta otzantasunaren* monopoliorik, inondik ere». Pozik galdetuko nioke Donostiako Setien jaunari honetaz zerbait.

*
* *

Kataluniako historigileen Eskola Berria sortu eta bizkortu zuen hirukotea itzali* da. Orain hamar urte edo

joan zen Jaume Vicens Vives (historigile gazte askoren maisu paregabea), abuztuan hil zen Santiago Sobrequès, eta hil berria da orain Joan Reglà i Campistol. Hauekin batean Ferran Soldevila eta Ramon d'Abadal gogoratzen baldin baditugu, berehala ohar gaitzke zernolako galera den Kataluniarentzat Joan Reglà-ren heriotzea. Soldevila eta Adabal izan dira tradizio zaharretik zetozenak (Menéndez Pidal bati aurpegi emanez, esate baterako). Vicens/Sobrequès/Reglà hirukoteak ireki ditu metodologia berrien erregebideak.* Herri handi horren onerako, jakitun horiek ba dituzte, dagoeneko,* jarraitzaile trebeak.

JOANES GOIA

dezakezu, **daikezu**

digute, **deuskue**

dizkie, **deutsez**

dizkiote, **deutsoez**

nioke, **neuskio**

zaio, **jako**

Froga ezazu zuk zeuk
BYASS 96
ona dela izenez eta izanez



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY